

BASERRITARRAK

Nekazari egunaren premia

Industria transformatzaileen tankerakoak dira egun honetan asko saltzen dutenak

Gernikako urriko azken asteleheneko azoka egun berezia da baserritarrentzako, eta asko saltzen dute, baina, Arantza Arrien EHNEk Lea-Artibain duen ordezkariaren arabera, «baloratu egin beharko litzateke momentu honetan, baserritarrei begira, zer den Urriko Azken Astelehena».

Izan ere, Arantza Arrienen ustez, Gernikako Azoka gaur egun ez da nekazari feria bat, «izen hori izaten jarraitzen du Gernikako Azokak, baina hortik kapora dagoen zerbait da», adierazi digu. Beraz, bere ustez, «baserriaren ikuspuntutik Urriko Azken Astelehen bat planteatzeko, guztiz aparteko gauza izan beharko luke».

Hala ere, Arantza Arrienek argi dauka urriko azken astelehenak jaiegun bezala balio handia duela. Baina, baserritik begira, «beste egun bat asmatu» beharko litzatekeela uste du. «Egun honetan ondo saltzen da, baina ez etortzen den jende kopuruaren proportzioan».

Arantzak argi utzi nahi izan dio EGUNKARIARI azoka baserritarrentzako egokia izateaz gain, beste elkarte batzuek etekin gehiago izaten dutela: «Autoak saltzen dituztenek, adibidez; baina baita beste hainbat elkar-tek ere, egun horretan hainbat



XOUSA SIMAL

Azokan, baserritarren rola aztertu beharko litzatekeela ikusten dute EHNEko kideek.

motatako jende asko biltzen baikara». Baserritarrek «talde txikitxoak» osatzen dutela gaineratu du.

Baserritarren atala

Baserritarrentzako konponbidea «baserritarrena izango litzatekeen atal bat bereiztea» izan daitekeela uste du Arantzak. Izan ere, Arantzak ez du hain argi ikusten egun honetako onura. Izan ere, EGUNKARIARI adierazi dionaren arabera, «egiten diren feria txikiagoetan joa-

ARANTZA ARRIEN

EHNEko Lea-Artibaiko ordezkaria

«Baserritarrok azokaren patrimonioa izaten jarraitu beharko genuke»

ten den jendea erostera joaten da, eta diru aldetik onuratsua goak izan daitezke».

Euskal Herrian mota honetako azoka handiak ez dira asko

egiten, baina txikiagoak eta desberdinak asko egiten dira. EHNEko Arantza Arrienen ustez, Gernikakoa bezalako azoka jendetsuak ez lirateke bultzatu behar baserritarrei begira, izan ere, «baserritarrok azokaren patrimonioa izaten jarraitu beharko genukeela uste dut».

Baserritarren onurarako beste mota bateko azokak bultzatu beharko liratekeela pentsatzen du Arantza Arriek.

SALTOKIAK

Produktuak eta kalitatea

Eztabaidarako beste gai bat saltzaileak benetan produktu horren ekoizleak direnez izango litzateke. «Azokan hainbat gazta saltoki egongo dira, baina, saltzaile horietatik zenbat izango dira artzainak?», EHNEko Arantza Arrienen hitzetan.

Egoera hau kontrolatu beharko litzatekeen zerbait da, izan ere, Arantzak esan duenez, «prestigiatu beharrean, kalte egin diezaguke». Gainera, «antolatzaileek saltoki gutxiengo bat nahi dute joango den jende andana dela eta, baina, ez dagoen lekutik ezin da ateratu».

Bestalde, jende asko baserriko produktuak garestiak izateaz kexu agertzen da. Arantzak dio prezioak «errespetatu» egiten direla, nahiz eta norbaitek produktua saldu ahal izateko alda ditzakeen. Beraz, «kalitatea eta prezioa proportzioan egoten dira». Gainera, azken 15 urtetan prezioek gorakada oso txikiak jasan dituztela baieztatu digu, «nahiz eta kostuak asko handitu diren».

Okindegia - LABAKOA-

Tel.: 94 625 09 44
94 625 33 19 / 42 95
94 625 23 43 / 56 22

Don Tello, 6
GERNIKA



OKINDEGIA - GOZOTEGIA

LEMONA

Urtarrilak 8 kalea, 6
GERNIKA

Tlf: 946258294

MINTEGIA MORRIS

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Tailerra: Tel./Faxa: 94 625 63 10
Mug.: 608 87 48 03
Etxekoa: 94 625 15 34

Errekazar, 10

GERNIKA

Akelarre

Barrenkale 5, 48300 Gernika
Telf.: +34 94 627 01 97
Fax: +34 94 627 06 75
Mugikorra: +34 656 76 22 17

E-mail: akelarre@akelarre.euskalnet.net
web: www.akelarre.euskalnet.net

bidaide gogaide

EUSKAL HERRIKO
MENDI
TXANGOEN:

- Datuak
- Ibilbidea
- Jakingarriak

www.Egunkaria.com/bidaide

Exclusivas GERNIKA, S.A.

BANATZAILEAK:

- EL COTO DE RIOJA - CAVAS HILL (PENEDES)
- BAINES PATXARANA (IRUÑEA)
- SAMALENS, BAS ARMAGNAC
- PALACIO KONTSERBAK (MENDABIA)
- GUTARRA, BARAZKI NATURALAK
- LEGUMBRES GOMEN (LEON)
- CATTOS WHISKY ESKOZIARRA
- ZAPIAIN SAGARDO NATURALA (ASTIGARRAGA)
- ACEITES DE OLIVA VIRGEN LA CHINATA, SABA
- ORUJOS GALLEGOS ADEGAS MOURE
- TXAKOLI ITSASMENDI BEREZIA
- TXAKOLI ARANE

Goiko Ibarra, 29 (Lehen "Vega Arriba" Ind.) • 153 P.K. - 48300 GERNIKA (Bizkaia)
Tel.: 94 625 33 00 - Faxa: 94 625 55 12

ZIMELA Jatetxea

- ✓ Eguneko menua
- ✓ Karta
- ✓ Ezkontzak eta bestelako ospakizun janak

250 mahaikiderentzat

Karlos Gangoiti, 57 • Tel.: 94 625 10 12 • GERNIKA